

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua, bazkide eta hornitzaile nagusi batzuk ditugulako atera dugu aurrera. Gure proiektua hezkuntza hezkundeetan dago zentratuta, kasu honetan parte hartuko duen ikastetxea Gasteizko Mendizabalako Lanbide Heziketako institutua da. Bideoa egiteko, gure mintegiko materiala eskura utziko digute (mikrofonoak, tripodeak...), honekin batera gure lan intelektual eta esku-lanak proiektua grabatzeko produkzio taldea sortu dugu, enpresa kideek.

Teknologia hornitzaileen artean, lehenago aurkeztu dugunaren arabera, bideoaren zabalketa QR bidez izango da. QRa sortzeko “QR code.io” erabiliko dugu. Bideoa Yotubeko plataforman eskegiko dugu, linkaren bidez bakarrik ikusi ahalko da, hau da, ez da guztiz publikoa izango.



Gure enpresako irakasleak institutoko suteen aurkako protokolo ofiziala eman zigun. Beraz, espertuen begiradatik planifikatuta eta neurtuta dago dena. Hortik hartu dugu adituek balioztatu diguten informazioa.

Hornitzaile hauek garrantzi asko dute gure proiektuan, izan ere, segurtasun adituek, gure bideo ekoizpen irakasleak eta teknologia hornitzaileekin batera proiektua garatzeko behar dugun espezializazioa eta teknika elkartzen direlako.

Gure proiektua zabaltzeko, hezkuntza erakundea oso baliagarria izango da alde batetik. Bigarrenez, QR kodeek teknologia eta bideoen kudeaketa errazten digu, prozesua eraginkorragoa eta fidagarria izan dadin. Logistika beharrezkoa da bideoak ikastetxe guztian



eskuragarri egoteko, eta guztientzako. Hori gutxi izango balitz, gure neurri protokolarioen zabalkuntza argia izango da edozein pertsonarentzako (itsu, gorra, hizkuntza ulertzeko arazoduna...), adibidez; edozeinek prebentzio neurriak azkar ulertu eta praktikan jarri ahal izateko, argi eta erraz ulertzeko

moduan aurkeztu behar ditugu irudi eta grafismo desberdinak. Informazioa fidagarria eta garrantzitsua dela aurrez aztertuz.